

Ebazpena: R 89/2023

Espedientea: 27/2017

Vitoria-Gasteizen, 2023ko irailaren 28an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honako hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabaki dute:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Bizkaiko Foru Aldundiaren (aurrerantzean, BFA) aurka aurkeztutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita zehaztea CARTERA URIBITARTE SL zergapekoaren zerga-egoitza aldatzearen ondoriozko BEZ saldoen bidalketa. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 27/2017 espedientezenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- 2013ko apirilaren 5ean, CARTERA URIBITARTEren zerga-egoitza 2001eko urtarrilaren 1era arteko atzeraeraginekin aldatzeko proposamena jakinarazi zion ZAEAk BFari.

2.- BFAk 2013ko ekainaren 10ean onartu zuen proposamena, eta 2015eko azaroaren 25ean erabaki zuen zerga-egoitza aldatzea, eta 2015eko abenduaren 9an jakinarazi zitzaion zergapekoari.

3.- BFAk 2009-2015 aldiko zerga-karpeta igorri zuen, baita karpeta horretatik eratorritako finantza-fluxuak ere (87.925,18 euro).

4.- ZAEAk BFari adierazi zion ez zegoela ados 2009ko apirilaren 5a baino lehenagoko aldietan jasandako BEZaren saldoekin (egoitza aldatzeko proposamenaren atzeraeragin-data, administrazioarteko kreditu publikoen eskubideen preskripzioak eragin gabe). Saldo horiek 2009an (902.278,48 euro) eta 2010ean (367.476,27 euro) konpentsatu ziren.

5.- 2017ko martxoaren 21ean, BFAk uko egin zion saldo horiek berriz bidaltzeari. BFaren ustez, zerga-egoitza lurralde erkidera aldatzearen ondorioak 2001eko urtarrilaren 1era atzeratzen direnez, ZAEAk onartu egin behar du 2006an eta 2008an jasandako BEZaren saldoen konpentsazioa, hau da, data horren ondoren eta 2009ko apirilaren 5a baino lehenagokoa.

6.- 2017ko martxoaren 22an, ZAEAk bere jarrera berretsi zuen, eta berriz baztertu zuten 2017ko apirilaren 4an.

7.- 2017ko maiatzaren 22an, ZAEAk inhibitzeko eskatu zion BFari, eta BFAk bere eskumena berretsi zuen 2017ko ekainaren 16an.

8.- 2017ko uztailaren 14an, ZAEAk Arbitraje Batzordean aurkeztu zuen eskumen-gatazka, zeina 27/2017 espediente-zenbakiarekin izapidetu baita prozedura arruntaren bidez.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoaren arabera, artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzordeari:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkek ebaztea, bai tributu itunduen loturen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan Ekonomia Ituna interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkek erabakitzea».

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Administrazioarteko zuzenbide publikoko kredituen preskripzioa.

Zerga-egoitzaren aldaketa baten atzeraeraginetik eratorritako finantza-fluxuak bidaltzea administrazioarteko zuzenbide publikoko kreditua da.

Arbitraje Batzordeak, 11/2014 Ebazpenean, eta Auzitegi Gorenak 2015eko abenduaren 15eko (ECLI:ES:TS:2015:5337), 2020ko maiatzaren 18ko (ECLI:ES:TS:2020:1010), 2020ko abenduaren 3ko (ECLI:ES:TS:2020:4077), 2021eko urtarrilaren 28ko (ECLI:ES:TS:2021:372) eta 2022ko otsailaren 10eko

(ECLI:ES:TS:2022:596) epaietan, honako irizpide errepikatu hau finkatu dute: administrazioarteko zuzenbidea aurrekontu arloko zuzenbide publikoa da, administrazioak zergadunaren aurrean duen tributu-zuzenbidez bestelakoa; eta administrazioarteko zuzenbidearen preskripzio-epaia okerreko diru-sarrera egiten den unean hasten da, eta ez da eteten zergapekoarekin (hirugarren bat administrazioen arteko harreman juridikoan) eskuduntzat jotzen den administrazioak betetako zerga-prozeduran egindako egintzen ondorioz.

Ondorioz, zergapekoak egindako diru-sarreretatik eta itzulketetatik eratorritako kreditu-eskubidea 2009ko apirilaren 5era atzeratzen da, nahiz eta bi administrazioek aitortu zergapekoaren zerga-egoitza askoz ere lehenago zegoela lurralde erkidean (2001eko urtarrilaren 1ean).

3.- Zerga-egoitza aldatuz gero, BEZaren saldoak lekuz aldatzeko ezintasuna.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia uniforme eman du BEZaren zatiketari buruz, soilik administrazio bati zergak ordaintzen dizkioten zergapekoen zerga-egoitza aldatzen den kasuetarako. Ildo horretatik, honako hauek aipatu behar ditugu: 2010eko ekainaren 10eko epaia (ECLI:ES:TS:2010:4013), 2010eko ekainaren 17ko epaia (ECLI:ES:TS:2010:4101) eta 2011ko martxoaren 30eko epaia (ECLI:ES:TS:2011:1904).

Epai horietan zehazten da konpentsatzeke edo itzultzeke dauden saldoak ezin direla eraman zerga-egoitza aldatzearen ondorioz eskudun bihurtu den administrazio berrira.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKITZEN DU

1.- Adieraztea BFAk ZAEari bidali behar dizkiola 2009ko apirilaren 5a baino lehen jasandako eta data horren ondoren konpentsatutako BEZaren saldoak.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta CARTERA URIBITARTE SLri.